

**PAISAIK (KLIMA BEROAK)****BASAMORTUAK**

Idatzi testua osatzeko falta diren hitzak.

Basamortuko klimaren ezaugarri nagusia (1)..... da.

Tenperaturaren arabera, basamortuak (2)..... edo hotzak izan daitezke.

Lehenengoak (3)..... inguruan daude. Mota horretako basamortuetan, egunez tenperaturak oso (4)..... izaten dira, eta gauaz bat-batean egiten dute behera. Basamortu hotzak, aldiz, (5)..... daude. Horrelako basamortuetan, udan tenperaturak oso (6)..... izaten dira egunez, baina negu luzean tenperaturek behera egiten dute.

Paisaiaren arabera, bi basamortu mota nagusi bereizten dira:

- (7)..... dunak daude.
- (8)..... , berriz, harri eta arroka estalgabeez osatuta dauden eremu zabalak dira.

Basamortuetan (9)..... izeneko ur-ibilguak daude, euria egiten duenean bakarrik ura eramaten dutenak.

Muturreko temperatura- eta landaredi-baldintzen ondorioz, basamortuak oso toki (10)..... dira bizia garatzeko; horrenbestez, ia ez da inor bizi horietan.

PAISIA NATURALA ETA PAISIA ERALDATUTA

Paisaia (11)..... deritzo gizakiek eraldatu gabeko paisaiari.

Elementu hauek baldintzatzen dute gizakiak paisaia batean edo bestean kokatzea:

- (12)..... : hotza, beroa, hezetasuna, etab. mugatzaileak dira gizakiak eremu horietan kokatzeko.
- (13)..... : biztanle gehienak eremu lauetan ta kostaldetik gertu dauden eremuetan bizi dira.



- (14)..... : biztanleen joera da ibaien inguruan biltzea , urak erabiltzeko.

Paisaiak (15)..... deritzo gizakiek natura-ingurunean egiten dituzten aldaketen emaitzari.

Mota horretako zenbait paisaia bereiz daitezke:

- Nekazaritza-jarduerak eragindako aldaketen emaitzak direnak: (16).....
- Hiriak eraikitzearen ondorioz sortu direnak: (17).....
- Industria-jardueraren ondorioz eraldatutakoak: (18).....
- Jarduera ekonomiko batzuen ondorioz eraldatutakoak, turismoa, adibidez: (19).....

KLIMA TROPIKALA ETA HORREN PAISAIAK

Klima tropikalaren ezaugarri bereizgarriak tenperaturak urte osoan (20)..... izatea eta prezipitazioen (21)..... dira. Prezipitazio gehientsuenak urteko sasoi batean pilatzen dira, eta horrek bi urtaro sortzen ditu; urtaro (22)..... eta urtaro hezea. Prezipitazio kopuruaren arabera, (23)..... eta klima tropikal hezea bereizten dira.

Ibai tropikalek emari (24)..... izaten dute, eurien arabera.

Klima tropikaleko paisaia bereizgarria (25)..... da. Ordoki oso zabala da, altuera handia har dezaketen (26)..... osatua, eta urtaroen arabera aldatzen da belar horien kolorea. Ibaiertzetan (27)..... sortzen da. Ekuatoretik gertu dauden eremuetan, berriz, (28)..... . Basamortuetatik gertu dauden eremuetan belar txikiz eta zuhaixka arantzatsuz osatutako paisaia sortzen da, hau da, (29)..... .

**KLIMA EKUATORIALA ETA OIHANA**

Adierazi zuzenak ala okerrak diren hurrengo esaldiak:

- ⇒ Ekuatoretik gertu dauden eremuetan hazten da oihana
(.....)
- ⇒ Ibaiek emari irregularra dute (.....)
- ⇒ Oihana ordoki oso zabal bat da, altuera handia har dezaketen eta, urtaroaren arabera, kolorez aldatzen duten belarrez osatua. (.....)
- ⇒ Klima ekuatorialeko tenperaturak altuak dira beti, eta prezipitazioak oso ugariak.
(.....)
- ⇒ Klima ekuatorialaren ezaugarri nagusia agortasuna da.
(.....)
- ⇒ Ibaiak oso emaritsuak eta irregularrak dira. (.....)
- ⇒ Landaredia oso urria da. (.....)
- ⇒ Oihana baso beti berdea da, oso sarria, eta landaredak altueraren arabera mailakatzen dira bertan. (.....)
- ⇒ Landaredi naturala lehortera oldatzen da. (.....)
- ⇒ Oihana zuhaixka, belar eta sastrakaz osatuta dago. (.....)